

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAJarduera Fisikoaren eta Kirolaren
ZuzendaritzaKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAJarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza**EBAZPENA, JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ
AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA EUSKAL KIROL FEDERAZIOAK ARAUTZEKO ARAU-
XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO.**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egokitzen du arau-xedapen orokor bat egitea euskal kirol-federazioak arautzeko, Euskadiko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legea garatuz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua arabera, xedapen arauemailearen proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunen web-atariaren bidez, eta, bertan jasoko da etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde ordezkagarrien iritzia.

Illo beretik doa Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua.

Beharrezkoa da kontsultak honako alderdi hauek aipatzea:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Hori dela eta, xedapen arauemailea egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak eragiten dien herritarrek eta gainerako erakundeek aukera izan dezaten parte hartzeko eta proposatzen den arauari ekarpenak egiteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa .- Kontsulta publikoaren izapidea egitea, EAEko kirol-federazioak arautzeko arau-xedapen orokor baten proiektua egin aurretik, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea garatuz.

Bigarrena .- Arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete, hamabost egun balioduneko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorka Iturriaga Madariaga
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria



ERANSKINA

Arauaren aurrekariak	- 16/2006 Dekretua, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena. - 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoarena eta kirolarena (aurrerantzean, 2/2023 Legea).
Konpondu nahi diren arazoak	Dekretu hau 2/2023 Legearen 3.2 h) artikulua arabera ematen da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie kirol-federazioen, kirol-kluben eta gainerako kirol-erakundeen araubidea arautzea. Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoko federazio-sistemaren berrantolaketa arautu nahi du. Era berean, arautuko da kirolarien eta kirol-klub edo -elkarteen lizentzia-kopurua, bai eta federazio-sistema gaur egun dagoen bezala mantentzeko beharrezkoak diren gainerako baldintzak ere, kirol-modalitate bakoitzean. Dekretuak, halaber, ezarriko ditu berregituraketa gauzatzeko beharrezkoak diren neurri ekonomiko, ondarezko edo bestelakoak 2/2023 Legea indarrean jartzeak aldaketa batzuk sartzen ditu euskal kirol federatuaren antolaketan, eta aldaketa horiek dekretu bidez arautuko dira. Alde batetik, kirol federatuaren antolaketa arautuko da, non euskal kirol-federazioak izango dira, oro har eta legez aurreikusitako salbuespenak salbuespen, kirol federatuaz arduratuko diren erakunde bakarrak. Bestalde, federazioen Batzar Nagusian eta Zuzendaritza Batzordean aldaketak egitea aurreikusten da. Era berean, dekretuak kirol-federazioen ordezkaritza- eta administrazio-organoen agintaldiak mugatu nahi ditu, federazio-erakundeak berritzen direla bermatzeko. Dekretuak, bestalde, aplikazio-irizpideak arautu nahi ditu, "garrantzi ekonomikoa" duten federazioak zeintzuk diren zehazteko. Halaber, Dekretuak arautuko ditu federazioek aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arauak, eta kontu-auditoretzak egin beharko zaizkie. Era berean, Dekretuak ezarriko du urte anitzeko gastuen zer ehuneko gainditu behar den administrazio-baimena lortzeko. Era berean, lizentziak izapidetzeko eta emateko ekonomia- eta prozedura-baldintzak zehaztuko dira. Azkenik, dekretuak kirol-federazioen gardentasun-araubidea ere jorratuko du, 2/2023 Legeak ezartzen baitu kirol-erakundeek beren web-orrietan argitaratuko dutela informazio jakin bat.
Araua onartzeko beharra eta egokitasuna	Kirol Federazioen Dekretu berria 2/2023 Legera egokitu behar da, nahitaez garatu behar diren aldaketa eta eguneratze batzuk aurreikusten baitira legean.

Arauaren helburuak	Arauaren helburua da euskal kirol-federazioak arautzea, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea garatuz. Zehazki, Dekretuak honako hauek arautu nahi ditu: 1) Euskal kirol-federazioen berrantolaketa. 2) Kirol-federazioen funtzioak. 3) Kirol-lizentziak. 4) Lehiaketa federatuak eta kirol-selekzioak. 5) Kirol-federazioak eratzea. 6) Federazioen araubide organikoa. 7) Federazioen hauteskunde-araubidea. 8) Federazioen diziiplina-araubidea. 9) Federazioen dokumentu-araubidea. 10) Federazioen ekonomia- eta ondare-araubidea. 11) Gardentasun-araubidea. 12) Aitorpen ofiziala errebokatzea. 13) Federazioak desagitea eta likidatzea. 14) Hizkuntza-normalizazioa. 15) Jarduera fisikoan eta kirolean edozein arrazorengatik agertutako indarkeria, intolerantzia eta diskriminazioaren prebentzioa.
Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik	Uste da arau-proiektua egitea Administrazioaren jarduketa beharrezkoa dela, eta horretara behartuta dagoela, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen erregelamendu-garapenean jatorria eta justifikazioa dituen neurrian. Hortaz, Beraz, ez dago kontsultaren xede den dekretua onartzeaz bestelako erregulazio aukerarik.